



Gilen TXINTXURRETA BEITIA
Arkitektoa

Estetikaz

Wittgensteinek etika eta estetika bat eta bera zirela zioen arren, sarritan kontra-jarrirako kontzeptu gisa ulertu izan ditugu. Siple esanda, etikak zuzentasun moralarekin du zerikusia, eta estetikak edertasunaren hautematearekin. Horrela, produktibitatea balio moral gorena den garaian, normala da edertasunaren bilaketa bigarren maila batean geratu izana.

Edertasuna oinarritzko “beharrak” (behar funtzionalak) aseta daudenean onar daitekeen kalitate gisa ikustera ohi-tu gara, eta beraz, edertasuna bere horretan ez da beharrezkoa, kapritxoa baizik. Erlijioa atzean utziko genuen Euskal Herri modernoan, baina erro judu-kristauak sakonak dira, eta kapritxoa bekatuaren pare da ia. Edertasunaren bilaketa formalak prentsa txarra du gurean.

Quousque tandem. Gogoeta hauek Iskandar Rementeria irakasleak Artiumen egindako hitzaldi bati zor dizkiot. Bertan, modu bikain eta sintetikoan Oteizaren ikerketa estetikoan inguruan jardun zuen, eta oriotarrak arteari egozten zion balio eraldatzailea azaldu zuen. Artearen eta edertasunaren defentsa egiteko, dirudienez, erabilgarria ere badela esatea besterik ez zaigu geratzen. Artista ezkertiar askoren ustez, baita Oteizaren ustez ere, artelanez kapazak izan behar zuten ikuslea hunkitzeko eta balio etikoak transmititzeko, al-daketa iraultzailea sustatuz. Ideia polita da. Denok nahiko genuke gure jardunari esker mundua hobetzea, baina nekez izango gara kapazak gugandik haratago dagoen ezertan eragiteko. Horrek, baina, ez du zertan txarra izan, eraldaketa norberarengan hasten baita.

Oteiza horretaz jabetu zen bigarren etapa batean, eta artean jarduteak eragiten dituen gogoeta eta eztabaida etiko eta estetikoak norbanakoa eraldatzeko gai zirela defendatu zuen. Horregatik, jarduera artistikoa gizarte osoari hedatu behar zitzaion, heziketa estetiko landu beharra zegoen.

Baina gaitasun eraldatzaile horren potentziala inork baino lehenago baliatu zuten botere ekonomikoek, eta, 50-60ko hamarkadetako pentsaera utopikoei itzuli merkan-tilista emanez, 80-90eko hamarkadetan nagusitzen hasi ziren ekonomia sortzailearen inguruko


diskurtsoak. Zenbait tokitan diskurtso hori arte objektuaren merkantilizazioan gorpuztu zen, eta Bilboko Guggenheim dugu honen eredu argiena. Artea eta arkitektura aitzakia gisa erabiliz, turismoan oinarritutako modelo ekonomiko bat bul-tzatzen da. Titaniozko eraikinean ez da artea sortzen ez susta-tzen, artea kontsumitzen da, eta haren arrakasta kontsumi-tzaile kopuruak ezarriko du. Guggenheim efektua deritzonak mundu osoan museo ikusgarriak agertzea ekarri zuen, sor-kuntza programarik gabe gehienetan.

Badago antzeko lerroan doan baina ezberdin jokatzen duen diskurtso bat, besteak beste Richard Florida soziologoak «Creative Cities» eta «The rise of creative class» liburue-tan sakondu duena.

Klase berri bat agertu da azken hamar-kadatan, artearekin zuzenean lotua ez, baina mundu sor-tzailean lan egiten duten milioika profesionalek osatua: zientzialari, musikari, teknologia langile, diseinatzaile... Eta badago, aldi berean, hauek erakartzeko hirien arteko gataz-ka bat, klase sortzaile honen inguruan garatzen baitira gaur egungo ekonomiarik dinamikoenak. Milan, Londres, Toron-to, New York, Tokio... Lehen mailako hiriak dira eta beti era-karri izan dute klase sortzaile hori, baina badira joko berean jolastu nahi duten beste hiri asko ere. Malagaren kasua da ezaguna, teknologia Hub bihurtu nahian dabilelako urteotan. Nantes, Basilea, Manchester... beste hiri askok ere tek-nologia eta diseinua hiri birgaitze prozesuekin uztartu di-tuzte, eta talentua erakartzeko borroka global honetan abantaila bilatzen dabiltza. Espazioaren erabilerarekin zeri-

kusia duten gatazka guztietan gertatu ohi den moduan, ahule-nak irteten dira galtzaile. Hiri hauetan guztietan gentrifika-zioa eta gethifikazioa prozesuak gertatzen baitira parez pare, aberatsak erakarriz eta bertako biztanle txiroak zokoratuz.

Gizartearen eraldaketa pro-gresista artearen bitartez egin-go zela ziotenen ideia berberak, desberdintasunak gero eta na-bariagoak izatearen politiken muina ere badira. Azken finean, ematen du estetika bezalako jarduera hutsalak badituela pi-suzko ondorio etikoak ere. Agian, Wittgensteinek zioen moduan, uste duguna baino gertuago daude. •



Oteiza eta Saez de Oizak Bilboko Alhondigarako egin zuten proiektuaren maketa, burutu gabea. G.T.B.